

53. ZIRKULARRA

GAIA: APARTEKO ORDUETARAKO IRIZPIDEAK

Opor, Baimen, Lizentzia, Lanaldi eta Eszedentziei buruzko Hitzarmenak, aparteko orduei dagokienez, honako hau ezartzen du:

"Salbuespena izanik, gehienez ere, 50 aparteko ordu egin daitezke urtean, hauetako kasuren bat gertatzen bada:

- a) Ezinbesteko kasua, alegia, hondamendi eta kalte aparteko eta urgenteei aurrea hartzeko edo horiek konpontzeko bada.
- b) Aurretik ikus ez daitezkeen arrazoiak direla-eta, ohiko lanaldia luzatzea halabeharrezkoa bada zerbitzuak normal funtzionatzeko."


Bere aldetik, AZLrentzat 2013an onetsi den lan egutegiak honako hau ezartzen du:

"Oro har, ordutegi malguaren tarte osoan emandako zerbitzuak lanaldiaren ohiko zenbaketan sartuko da. Edonola ere, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko kasuetan, administrazio organo eskudunek zilegi izango dute aparteko orduak egitea aipatu ordu-tarte horretan, betiere ezarrita dagoen eguneko lanaldia bete ondoren."

Esandako araudi hau aplikatzeak arazoak sortzen dituela ikusirik, zeren eta praktikan zenbait zerbitzutan aparteko orduak egiten baitira salbuespenezkko inguruabarririk gertatu gabe, honako IRIZPIDE argigarri hauek ezarriko dira:

- Aparteko orduak egin baino lehenago, dagokion zerbitzuko zuzendariak egin behar diren aparteko orduak justifikatzeko idazki bat bidaliko dio Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariari, behar honek zenbat langile ukituko dituen eta zenbat ordu egingo diren balioespenarekin. Txosten horrek kudeatzailearen oniritzia eduki behar du. Ez bada ustekabeko zerbitzuak sortzen direla, ez da aparteko ordurik onartuko alde aurretiko txostenik gabe.
- Oro har, ezin izango da baimena eman aparteko orduak egiteko malgutasun-lanaldiaren barruan, lan egutegiak ezartzen duen moduan. Ordutegi horren barruan, ohiko lanalditik goira egiten diren orduak, ordu-poltsara sartuko dira, ordu bat ordu bakoitzeko.
- Denbora aparteko ordutzat hartu ahal izateko, ohiko lanaldia eginda eduki beharko da (2013 urte honetan, lanaldi osoko langile batentzat, ohiko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa da).

- Aparteko orduak ordu-kontu negatiboa estaltzeko erabiliko dira, halakorik balego.
- Kudeatzaileak ahalmena dauka aparteko orduak egitea debekatzeko.
- Egindako aparteko orduak hartzeko, zerbitzuaren beharrak hartuko dira kontuan, eta arau orokorra izango da egin ziren urte naturalaren barruan hartzea. Hala ere, zerbitzuko zuzendariak alde aurretik baimena ematen badu, ordu horiek hurrengo urtean hartu ahalko dira, eta edonola ere urte horretako abenduaren 31n iraugiko dira.
- Aparteko orduak ezin dira metatu beste hainbat egoerak sortzen duen denborarekin (San Ferminetako, hasiera ekitaldiko edo prestakuntzako orduak).
- Ez da aparteko ordutzat hartuko ordubeteko lana gainditzen ez duen denbora.
- Azaldutako egoera horietan egiten diren aparteko orduak atsedenaldiekin konpentsatuko dira, irizpide hauen arabera:
 - Laneguna bada: ordu bakoitza ordubete eta berrogeita bost minuturekin konpentsatuko da.
 - Larunbata, igandea edo jai egunak badira: ordua bi ordubeterekin konpentsatuko da.
 - Gaueko orduak badira: ordua bi ordubeterekin konpentsatuko da. Gaueko orduak izango dira 21:45etik 7:15era bitartean egindakoak.
- Aparteko orduak konpentsatzeko, jai eguntzat hartuko dira Nafarroako Gobernuak horretarako ematen duen ebazpenak ezartzen dituenak.

Jarraipena: GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUA	Nork onetsia: KUDEATZAILETZA Eguna: 2013ko azaroaren 4an  Sinatua: Pedro Iráizoz Munárriz <small>Gereñia/Kudeatzailetza</small>
---	--